

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Herrian errotutako
Udaltzaingoa**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzeke telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Gertuko segurtasun zerbitzu baterantz urratsa.....	3
Elkarrekin, eredu jakin baterantz	4
Elkarrizketa:	
Leire Goenaga, Langileria batzordeburua.....	6
Eraikin berria izango du Udaltzaingoak	7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak atera, eskaera orokorrak eta lizentziak eskaerak aurkeztu edo kontsultak egin ditzakezu bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Gertuko segurtasun zerbitzu baterantz urratsa

Herritarrei ematen zaien zerbitzu bat da segurtasuna. Zerbait behar dutenean, oro har, lehenik eta behin, udaltzainen atea jo ohi dute herritarrek. Azpeitian, gainera, eguneko 24 orduetan egoten da zabalik Udaltzaingoa, urteko egun guztietan. Zerbitzu horrek ezaugarri jakin batzuk edukitzea nahi du Azpeitiko Udalak: gertukoa izatea, euskalduna, herriarekiko atxikimendua duena... Uste du Zumairekin eta Getariarekin batera egingo duen Udaltzaingoaren lan eskaintza publiko bateratuak horretan lagunduko diola.

Izan ere, deialdira aurkezten direnek aurrez badakite non lan egiteko den eskaintza; hau da, Azpeitian, Zumaian edo Getarian lan egiteko prest dauden hautagaiek emango dute izena. Deialdiko probak ere bilatzen den eredu horrekin bat etorriko dira: besteak beste, herri horietako bati buruzko ezagutza azterketa egin beharko dute hautagaiek (norberak aukeratzen duen herriari buruzkoa).

Euskaraz badakitela egiaztatzeko, berriz, B2 maila badutela frogatzeaz gain, bi azterketa euskaraz egin beharko dituzte.

Martxoan argitaratuko dituzte deialdiaren oinarriak. Hasiera batean, Azpeitirako postu bakarra eskainiko da, baina epe ertainean kopuru hori handitzea aurreikusten da. Era berean, lan poltsa bat ere eratuko da prozesua gaingitzen dutenekin, aurrerantzean egon daitezkeen beharrei aurre egiteko. Zumaia kudeatuko du deialdia.

**Azpeitian, eguneko
24 orduetan egoten da
zabalik Udaltzaingoa**



Elkarrekin, eredu jakin baterantz

Herritarrengandik gertu egongo den Udaltzaingoa nahi du Azpeitiko Udalak. Herria ezagutzen duena. Euskaraz lan egiten duena eta euskaraz harremantzen dena. Prebentzioan indarra jartzen duena. Izaera hezitzailea duena. Udal langileak dira udaltzainak, eta eredu horren alde, hainbat pauso sustatu ditu udalak azken urteotan: indarkeria matxista kasuak jasan dituzten emakumeentzako Babesa zerbitzua, gatazken konponbide adostuak lortzen laguntzeko bitartekaritza zerbitzua...

Bide horretan sakontzeko, beste urrats bat egitera doa orain. Zumaiaiko eta Getariako Udalekin batera, Udaltzaingoaren Lan Eskaintza Publiko (LEP) bateratua abiatuko du. Prozesu horren bidez, Azpeitian lan egin nahi duten udaltzainak kontratatu nahi ditu udalak.

Hautagaiek gaintitu beharreko probetako bat herriaren ezagutzari buruzkoa izango da

Prozesuaren bereizgarrietako bat da gaintitu beharreko probetako bat herriaren ezagutzari buruzkoa izango dela. Hautagai bakoitzak aukeratu egin beharko du hiru herrietako zeini buruzko azterketa egin nahi duen. Euskarari dagokionez, B2 mailari dagokion titulua eskatuko da, baina, horrez gain, euskaraz egin beharko dira hiru proba teorikoetatik bi.

EGONKORTASUN NAHIA

Udaltzainen lantaldearen egonkortasuna lortzea da hiru herriek elkarrekin egingo duten deialdiaren beste helburuetako bat. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hainbat udalerrik hitzarmena dute Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin (Arkauti), eta haren deialdi bateratuen bidez bete ohi dituzte udaltzain postuak.

Bide hori eroso den arren, esperientziak erakutsi du Arkautiko prozesuak, askotan, ez direla praktikoak izaten Azpeitia bezalako herrientzat, izan ere, udaltzainek, oro har, nahiago izaten dute hiriburuetan edo norbere etxetik gertu dauden herrietan lan egitea; ondorioz, horretarako aukeraren bat sortzen zaienean, joan egiten dira.

POSTU GEHIAGO AURREIKUSITA

Hiru udalek elkarrekin egingo duten prozesuan, bost postu eskainiko dira: Azpeitirako bat, Zumaiarako hiru eta beste bat Getariarako. Hala ere, etorkizun hurbilean, prozesu horretara postu gehiago batzea aurreikusten da Azpeitian. Izan ere, barne promozio bitartez, lau agente lehen postu beteko dira; ondorioz, hutsik geratuko diren postuak prozesura gehitzea espero da. Gainera, lanpostu horiek betetzeaz gain, prozesutik lan poltsa bat eratuko da, hiru herriotan aurrerantzean egon daitezkeen beharrei erantzuteko.

Udaltzaingoaren Lan Eskaintza Publiko bateratua kudeatzearen ardura Zumaiaiko Udalak izango du. Azpeitiko eta Getariako udalek Zumaiaiko Udalaren esku utzi dute prozesuaren gainera eskumena. Azpeitiko Udalak otsaileko udalbatzarrean onartu zuen erabaki hori, EH Bilduko zinegotzien aldeko botoarekin eta EAJkoen abstentzioarekin. Aurreikuspenen arabera, martxoan argitaratuko dira deialdiaren oinarriak.



Leire Goenaga

Langileria batzordeburua

“Segurtasuna zerbitzu bat da, eta herritarrek egoki jasotzeko eskubidea dute”



Azpeitiko Udalak erabaki du, Zumaiaiko eta Getariako udalekin batera, Udaltzaingoaren Lan Eskaintza Publiko (LEP) bateratu bat egitea. Zergatik?

Udaltzainak udal langileak dira, eta langileen kudeaketa eskusiboki udalona da. Hainbat aukera daude udaltzainak kontratatzeko: geuk bakarrik egitea lan eskaintza publiko bat, Arkautirekin hitzarmena egitea, beste herri batzuetako lan poltsetatik tira egitea beharra dugunean...

Kontuan izan behar dugu segurtasuna zerbitzu bat dela, eta herritarrek egoki jasotzeko eskubidea dutela. Horri lotuta, Azpeitiko Udalak segurtasun eredu jakin baten alde egiten du: gertutasunean oinarritzen den eredu bat nahi dugu, konpromisoa eta atxikimendua ezaugarri dituen eredu bat, eta guk bezala, Zumaiaiko eta Getariako udalek ere bai. Horregatik erabaki dugu hiru udalok elkarrekin egitea Udaltzaingoaren lan eskaintza publikoa.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak (Arkauti) ere egiten ditu udaltzainen LEP bateratuak. Azpeitiak, ordea, ez du hitzarmenik harekin. Zergatik?

Arkautirekin hitzarmena egitea biderik erosoena da udalentsat. Adibidez, udaltzain batek baja hartzen badu, deitu eta lan poltsatik bidaltzen dute. Alabaina, oso posible izaten da Azpeitia batere ezagutzen ez duen norbait etortzea, edo Azpeititik kilometro askora bizi den norbait etortzea. Horren

beste ondorio bat izaten da udaltzain horiek, beste aukera bat sortu orduko, alde egiten dutela. Deialdi honetara aurkezten denak aurrez badaki non lan egiteko den; hau da, Azpeitian, Zumaian edo Getarian lan egiteko emango du izena. Deialdi honen bidez, lantalde egonkorragoak lortu nahi dira.

Aurkezpenean esan zenuten herria ezagutuko duten eta euskaraz arituko diren udaltzainak nahi dituzuela. Nola bermatuko duzue hori?

Lan eskaintzako probetako bat herriaren ezagutzari buruzkoa izango da. Hautagaiek aukeratu egin beharko dute hiru herrietako zeini buruzko azterketa egitea nahi duten. Euskarari dagokionez, B2 maila eskatuko zaie hautagaiei, hiru udalon lanpostu zerrendetan hala eskatzen zaielako udaltzainei, baina, horrez gain, hautagaiek euskaraz badakitela ziurtatzeko, bi proba euskaraz izango dira. Hau da, proba fisikoaz gain, beste hiru proba egin beharko dituzte hautagaiek, eta horietako bi euskaraz izango dira: herriaren ezagutzari buruzko proba eta proba praktikoa.

EAEko Polizia legeak esaten du udaltzainek prestakuntza bat egin behar dutela Arkautin. Hiru udalok egingo duzuen deialdian ere eskatuko da prestakuntza hori?

Bai, gainerako udaltzainek bezala, lanpostua lortzeko ezinbestekoa izango da prestakuntza hori jasotzea. Gure deialdiko epaimahaian ere Arkautiko ordezkari bat egongo da, legeak eskatzen duen bezala.



Eraikin berria izango du Udaltzaingoak

Azpeitiko Udaltzaingoak Plaza Txikian du egoitza gaur egun, baina ez denbora askorako; izan ere, Olazko Andre Mariaren plazan lokal berria erosi du udalak, hara lekualdatzeko. Proiektua egiten ari da, eta aurren bertan hasiko dituzte lanak.

Eguneko 24 orduetan ematen du zerbitzua Udaltzaingoak Azpeitian, eta 25 lagunekoa lantaldea du. Lan Ikuskaritzak jartzen dituen baldintzak bete ahal izateko, txiki geratu da gaur egungo eraikina. Horrez gain, kokalekuak baditu beste eragozpen batzuk ere: ez da egokia autoz atera ahal izateko, herritarrei arreta egiten zaien gunea ere ez da oso eroso...

Horiek aintzat hartuta, lokal berria erostea eta egokitzea erabaki du udalak. Helburua da udaltzainek ahalik eta arretarik onena ematea herritarrei. Hainbat aukera aztertu ostean, Olazko Andre Mariaren plazako 8 zenbakiko lokala erosi

du (Centerpoint akademiaren azpian). Kontuan hartu behar da babes zibileko eraikina dela Udaltzaingoaren egoitza; ondorioz, beste eraikin batzuek bete behar izaten ez dituzten baldintza batzuk bete behar izaten ditu kokalekuari, ekipamenduei eta abarri dagokienez.

Lokal berria herriaren erdigunean egotea lehenetsi du udalak, baita ibilgailuek sartu-irtenak azkar eta erraz egiteko aukera izatea ere. Eraikinak 180 metro karratu izango ditu, eta solairu bakarrekoa izango da.

**Udaltzaingoaren
ibilgailuek sartu-irtenak
azkar eta erraz egiteko
aukera izatea lehenetsi da**



Etxebizitza Bulegoa

Enparan Kalea 34

943 15 71 83

Ordutegia:

- Astelehen, asteazken eta ostiraletan: 08.00-14:00
- Astearteak: 08:00-13:30 eta 14:30-17:30
- Ostegunak: 08:00-13:30 eta 15:00-19:00 (udaletxean)

www.azpeitia.eus